

TREBAKUNTZA 2016-12: TESTU ULERGARRIEN BILA

Udal idazki askotan esaldi luze ulergaitzak irakurri izan ditugu. Esaldi horiek ulerterrazago nola jarri ikusiko duzue adibide hauetan: puntuazioaren bidez esaldiak moztu, ordena aldatu, hitz konkretuak erabili...

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Honen bidez, EAeko langilegoarentzako lan baldintzak finkatzen dituen Akordio Arautzailean aurreikusitako Gizarte Fondon laguntza-hartzailea izateko eskakizun hau dagokion Zuzendaritzan -Negoziazio Kolektiboko Zuzendaritzabidera dezazun eskatzera natorkizu.*
2. * *Sailak hiesaren aurkako plangintza bat eratu du, zeinak MOE-k eta Europako Biltzarrak emaniko gomendioetan oinarriturik, arrisku talde batzuen artean HIES-ek izaten duen maiztasuna gutxiagotuz gain, populazioenganako hedapenaren aurkako neurriak alde aurretik hartzeko ere balio baitu.*
3. * *Agindua, 1994ko maiatzaren 2koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuarena, martxoaren 17ko 70/1993 Dekretuaren bidez (1993ko martxoaren 28ko EHAA) eta hori garatzeko 1993ko ekainaren 15ean emandako Aginduaren (1993ko uztailaren 3ko EHAA) eta 1993ko urriaren 11ko Aginduaren bidez (1993ko urriaren 20ko EHAA) araututako diru-laguntzak jasoko dituztenen zerrendak argitaratzen dituena.*
4. * *Azken bolada honetan, edozein egunetan, mota guztietako komunikabideetan gure herriarentzat zama larria den langabeziari buruzko hainbat aburu eta iritzi agertu direla ikusirik —eta guzti-guztiak begirunez entzutea merezi dutelarik—, langabeziari aurre egiteko neurriak ahaztu gabe, gure sailaren hausnarketak eta gogoetak agertzea ere komenigarria ez ezik, beharrezkoa, areago, ezinbestekoa ere delakoan, egunkari honetan argitaratzen diren artikuluetako baten bidez gure gai lazgarri honetarako jarrera eta jitea helarazi nahi dut zuregana.*

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

ZUZENKETAK

1.

a) Jauna:

Dakizunez, Gizarte Fondoak aurreikusten dira EAEko langileen lan baldintzak finkatzen dituen akordio arautzailean. Gizarte fondoan laguntza jaso nahi dut, eta, horregatik, eskatzen dizut nire eskabidea Negoziazio Kolektiboko Zuzendaritzan bideratzeko.

b) Jauna:

Honen bidez bidaltzen dizut gizarte fondoan laguntza jasotzeko eskabide hau, Negoziazio Kolektiboko Zuzendaritzan bideratzeko dezazun. Dakizunez, gizarte fondo horiek EAEko langileen lan baldintzak finkatzen dituen akordio arautzailean aurreikusten dira.

2. Sailak hiesaren aurkako plangintza bat eratu du, MOEk eta Europako Biltzarrak emandako gomendioetan oinarriturik. Horren bidez, aukera izango dugu, batetik, arrisku talde batzuetan hiesak duen maiztasuna gutxiagotzeko, eta bestetik, neurriak alde aurretik hartzeko, populazioarengana heda ez dadin.

3. Agindua, 1994ko maiatzaren 2koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuarena. Honen bidez, diru-laguntza jakin batzuk jasoko dituztenen zerrendak argitaratzen dira.

Diru-laguntza horiek jaso ahal izateko betebeharrak eta gainontzekoak honako xedapenek arautzen dituzte: martxoaren 17ko 70/1993 Dekretuak (EHAA, 1993-03-28) eta dekretu hori garatzeko 1993ko ekainaren 15eko Aginduak (EHAA, 1993-07-03) eta 1993ko urriaren 11ko Aginduak (EHAA, 1993-10-20).

4. Azkenaldi honetan, langabeziari buruzko iritziak sarri agertu dira komunikabideetan. Ezin ukatu iritzi guztiak entzutea merezi duela; ezinbestekoa da, arazo larria baita gure herrian. Horregatik, gure sailaren hausnarketak ere ekarri nahi ditugu orrialde hauetara, gure sailaren jarrera agertzeko, baita langabeziari aurre egiteko zein neurri hartu edo proposatu ditugun.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99